

ANIZTA
SUNA
ERE
OSPATU
EGITEN DA

...

GUZTIONTZAKO JAIEN ALDE



MIGRAZIO
ETA ASILO
EUSKAL
FOROA

FORO

VASCO
DE MIGRACIÓN
Y ASILO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



MIGRAZIORAKO
EUSKAL
ITUN SOZIALA
PACTO SOCIAL
VASCO PARA
LA MIGRACIÓN





Aniztasuna ikusarazteko eta pertsona migratuen parte-hartzea sustatzeko jarduera espezifikokoak antolatzea gero eta ohikoagoa da. Hala ere, benetako helburua **jai inklusiboak** lortzea da, pertsona guztiek parte har dezaten eta ospakizunak norberarena balitz bezala bizi ditzaten, horrela bizikidetza eta nortasun partekatua indartuz.





Hiriak, herriak eta auzoak askotarikoak dira, eta **auzotar guztien aniztasuna** kontuan hartzen duten jaiak merezi dituzte, edonor sentitzeko modukoak.



ZER HARTU KONTUAN



Tradizioak garrantzitsuak dira... eta eboluzionatu ere egiten dute! Betikoa mantentzeak eta kultura berriei lekua irekitzeak **ez du nortasuna kentzen: aberastu egiten du.**



Kultura-aniztasun handiagoak parte-hartzea zabaltzen du, bizikidetza sortzen du eta jaiak interesgarriagoak egiten ditu.



Zenbat eta gehiago parte hartu, orduan eta hobeto dabiltza jaiak.


1. **Zabaldu** noiz biltzen zareten
2. **Egin gonbidapen** pertsonalak
3. Elkarte eta kolektiboekin **konektatu**
4. Zereginak **partekatu**

PARTE HARTU!

ZURE PAPERA GARRANTZITSUA DA



1. Jardueretan **parte hartu**
2. Beste pertsona batzuk **gonbidatu**
3. Ideiak eta proposamenak **partekatu**
4. Ekitaldiak **zabaltu**
5. **Lagundu** batzordeari denborarik baduzu



JAI INKLUSIBOEK KOMUNITATEA SORTZEN DUTE ETA LAGUNTZEN DUTE

- ☑ **Bizikidetz**a indartzea
- ☑ **Nortasun partekatua** sortzea
- ☑ **Pertsona berriak** ezagutzea
- ☑ **Aurreiritziak haustea**

